



TOLOSAKO GARAGARDO AZOKA ATE JOKA

25 garagardo mota dastatu ahalko dira Zerkausian, hilaren 18tik 21era bitarte izango den X. Garagardo Azokan » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-09-12

VIURTEA 1506.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lander Otermin Suediatik itzuli berri da eta gustura azaldu da txapelketak eman duenarekin. R. CALVO

LANDER OTERMIN SOKA TIRALARIA, MUNDUKO ONENEN ARTEAN

IBARRA Lander Otermin ibartarra «oso pozik» bueltatu da Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketatik, txapelik gabe bueltatu den arren 6

Hiru gunetan banatuko da jaia giroa bihar Zaldi Egunean

LEITZA Aurrera Perra Taldeak, Udalak eta Plazaola Partzuergoak antolatu dute jaia 7



Atzo inauguratu zuten Kiroljokoaren Tolosako apustu-etxe berria. ESTI EZEIZA

Lehen apustu etxea inauguratu dute

TOLOSA Zaletuek euren apustuak egin ditzakete; Nahien eta Kantabrikon ere badaude makinak 4



bidali opor hauetako
argazkiak!



Sari
nagusia

2. saria

3. saria



Beti Alai
jatean



Amorotoko
Altuena
landetxean,
bi pertsonentzako
bi gauerako
egonaldia.



Tolosako
Bet Alai jatean,
bi pertsonentzako
bazkari edo afaria.

Ibarrako Azoka dendak
eskaintako saski berezia.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

◦ P. elektronikoa:
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
◦ Postaz:
Argazki lehiaketa,
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,
Araba etorbidea 5 behe, atzea
20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo
Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean
HITZAko materiala zozketatuko dugu!

HITZA udako argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen keax, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue aukeran: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atala erabiliz; e-mail bidez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidera bidaliz edota 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta.

Voith-Gorostidin arazo berriak?

Zurumurrua zabaldu da, Voith-Gorostidiko etxe-blokeetako bat behintzat geldirik ote dagoen.

Asteburuan bizpahiru aldetatik bertsio ezberdinak entzun ditut: Voith-Gorostidiko etxe tasatuen eraikuntza arazoak sortu direla. Eta altxako dituzten bi blokeetako batean prozesua geldirik dagoela eta ez dakit noiz arte ez dela konponduko, eta horrela.

Amenabar eta Sukia enpresak elkarrekin konpondu ezinik ote dabilen. Informazio zehatzik ba al du inork horri buruz? (izena emanda daudenak beldur-arazteaz harata, informazio «kontrastatua» eskertuko genuke...).

E. Mandiola.

Zebrabidean ere arriskuak

Tolosar bat naiz. Seme txiki bat daukat eta berarekin kalera ateratzea arriskutsua suertatzen zait, herriko hainbat tokitan. Esaterako, kolektorearen lanak direla eta, San Franzisko ibilbidearen amaieran, Pedro de Tolosa ibiltokiarekin bat egiten duen zati horretan, zebrabide probisional bat jarri dute.

Beraz, hortik pasatzera behartuta zaude. Kontua da zain zaudenean bidegorrian geratzen zarela, hare gehiago umearen kotxearekin zaudenean. Arriskutsua dago paso hori bizikletarekin doazena hortik pasatzen direlako eta ez dago lekurik denentzat. Egunen batean istripuren bat gertatuko da bertan. Beraz, beste bideren bat jartzea eskatzen du, denon mesederako.

Bide batez, geltokiko bide horierez dago batere ondo pasatzeko. Herriaren obrak egitea beharrezkoa dela

badakit baina pentsatu guztien-gan.

Mikel (Tolosa).

Xahutzea Ibarren

Behin baino gehiagotan entzun izan dut nire inguruan, eta beraz, uste dut Ibarren Udalari beste behin ere errepikatzen garaia iritsi dela. Ibarren Euskal Herria kalea zeharkatzen dudana guztietan Udalak guztion dirua xahutzeko duen gaitasun berezia erortzen zait burura. Farolak nonhai, kalea behar duguna baino askoz gehiago argitzen, gure dirua alperrik botatzen. Diruarena hala ere, ez da gehien larritzen nauena, entzun al du Udalak inoiz argi-kutsadura kontzeptua? hala ez bada, edozein hiztegi edota interneteko wikipedian begiratu!! segituan ulertuko duzue zertaz ari naizen. Argiarenarekin batera, bestelako xahutzea ere ageri da Euskal Herrian, honakoan, ura da protagonista. Loreak jarri dituzte bazter guztietan, farolen goian, loreontzietan... Loreontziekin farolekin dugun arazo bera dugu, gehiegi daude, eta hauen mantentzeak ere diru asko balio du. Azken kontua, xahutzearen haritik, zergatik bete dute herri osoa altzairu herdoilgaitzeko baranda eta antzekoekin? ez al dago merkeagoa den beste materialik? horrenbeste baranda behar al dira?

Lander.

Araba etorbideko arriskua

Kolektorearen obregatik norabidea aldatua dago duela hilabete batzuk, eta zati batean bi noranzkoetan dago. Hain zuzen ere, arriskua Araba etorbidearen atzealdean, hau da, tren geltokiaren aldamenetik doan errepidean dago, San Esteban

auzora joateko dagoen bidegurutzean. Argi asko jartzen du hor lehenetasuna Araba etorbideko doazentzat dela, baina antza batzuk oraindik ez dira konturatuta, edp ez dituzte seinaleak ikusten edo, beste-

rik gabe, ero batzuk bezala ibiltzeratzen. Argi asko jartzen du hor lehenetasuna Araba etorbideko doazentzat dela, baina antza batzuk oraindik ez dira konturatuta, edp ez dituzte seinaleak ikusten edo, beste-

nuen, eta izan dira istripu bat baino gehiago. Arreta handiagoz ibili mesedez, eta seinaleak zerbaiterako daude, edo hortik pasatzean beti beldurrez ibili behar al dugu, ba?

Gorka.

**B Blogteka****Ikasle nomadak**

Ikasle: ikasten ari dena, irakasle batengandik eskolak jasotzen ari dena.

Nomada: toki finkorik ez duena, batetik bestera dabilena.

Ikastolan emandako urte luze haiek hitz gutxitan azaltzea lan zaila da. Gainera, inongo interesik ez duen anekdotario huts batean gelditzeko arriskua ere hortxe dago. Hortaz, esperientzia soil batean oinarrituta, ikasle ohi honen istorio arruntaren pasarteak, Laskorain Ikastolaren historiaren le-

kuko umil bat baina ez dira izango.

1930. hamarkadan eman ziren ikastolak sortzeko lehen urratsak. Urte haietan, ordea, Euskal Herria ilunperik luzeenean sartu zuten. Tunel beltz horretatik irtetzen hasi zenean lehen eguzki printzek eskaini zioten argiune umil bat herriari, euskarari. Udaberri berrian, debekuei aurre eginez, beldur oroz gandi. Kultura mailan dantza taldeak loratu ziren; euskal artistek Emen, Gaur edo Orain bezalako taldeak osatu zituzten; musikagintzan Ez Dok Amairuren tartea

izan zen; eta hezkuntza arloan Ikastolak sortzen hasi ziren. Izen eta abizen zehatzek -gure ikastolatan irakatsi eta inoiz ahaztu behar ez genituzkeen izen propioak egindako lan itzelari esker euskara berpizteko lehen haziak ziren. (...)

Fernando Rojo ikasle ohiak Ikastolaren 40. urteurreneko libururako idatzitako testua.

Liburua salgai dago Elkar, Zunbeltz eta Galarraga liburudendetan.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain>

U Urteurrena

I. urteurrena
IGOR PELAEZ ETXARRI
(2007ko irailaren 12an hil zen)

Ez agurrik,
gure bizitzan zaude betirako.
Maite zaitugu.

ETXEKOAK

AZPEITIA
2008ko irailaren 12a



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

K Kirol jarduera

Bihar

Futbola

■ Berazubiko zelaian, jubenilen liga nazionalako partida izango da ikusgai. Tolosa CF eta Reala izango dira aurrez aurre, 17:30etik aurrera.

■ Usabal kiroldegia zelaian, infantilen ohorezko mailaren partida, Tolosa CF eta Beasainen artean, 09:30ean.

■ Usabal kiroldegia zelaian, kadeteen ohorezko mailaren partida, Tolosa CF eta Durangoren artean, 11:00etan.

■ Usabal kiroldegia zelaian, Tolosa CFko kadete emakumeek jokatuko dute futbol 8 partida, 12:45ean hasita.

■ Usabal kiroldegia zelaian, lurraldekako 1. mailako partida, Tolosa CF eta Arrasateren artean, 15:30ean.

■ Usabal kiroldegia zelaian, lurraldekako 2. mailako partida izango da ikusgai, Amarotz eta Lasarte taldeen artean, 17:30etik aurrera.

Etzi

Futbola

■ Usabal kiroldegia zelaian, jubenilen 1. mailako partida, Amarotz eta Seguraren artean, 11:00etan.



Extremadura gehiago ezagutzeko

GIZARTEA ■ La Jara Extremadurako elkarteak antolatuta, Kultur Astea ari dira ospatzen aste honetan. Hala, atzo arratsaldean *Zer dakizu Extremaduraz?* lehiaketan aritu ziren jolasean elkarteoen egoitzara gerturatu zirenak. Halaber, Extremadurako plater erregionalen lehiaketa ere egin zu-

ten. Biharkoan, karta jokoa ariko dira elkarteok bazkideak, cuatrola, tute, chinchon eta mus txapelketak egingo dituzte, hain zuzen ere. Eta, etzi, igandean, musikaren txanda izango da, Aulaga Folk Extremadurako taldea ariko baita Triangulon, 18:00etatik aurrera. I. TERRADILLOS

Josu Agirrek beste urtebetez jarraituko du Euskaltel Euskadirekin

Txirindularitza ■ Datorren denboraldira arte jarraituko du taldearekin; urte honetan amaitzen zitzaion hitzarmena.

ERREDAKZIOA

Josu Agirreraren txirindulari tolosarrak beste urtebetez jarraituko du Euskaltel Euskadi taldearekin. Hain zuzen ere, urtebeterako hitzarmena zuen txirindulariak Euskaltel Euskadirekin, eta urte honetan amaitzen zitzaion. Sinatu berri duen berrikuntzarekin, datorren denboraldira arte jarraituko du, beraz, taldearekin.

Txirindulari tolosarrarekin batera egoera berean zeuden Iban Velasco eta Markel Irizargipuzkoarrek eta Alan Perez nafarrak berri dute Euskaltel Euskadirekin.



Josu Agirre. I. TERRADILLOS

Hilaren 18tik 21era, X. Garagardo Azoka

Gastronomia ■ 25 garagardo mota dastatu ahalko dira; ogitartekoak eta burrunziak dira aurtengo berrikuntzak.

ERREDAKZIOA

Tolosako X. Garagardo Festa izango da datorren astean, hilaren 18tik 21era, eta antolatzaileak, hau da, Judo taldea, Tolosa CF Txirindularitza taldea eta Tolosaldea IKT, buru belarri ari dira azken ukituekin.

Denera, 300 lagun ariko dira lanean, eta 9.000-10.000 garagardo

litro, 2.000 ukondo eta 4.000 saltxitza izango dituzte prest zerbitzatzeko. Bazkari eta afarirako 5 jatetxe atonduko dituzte, Plaza Zaharrean, Solana kalean, Zerkausian, eta Zerkausian goiko pisuan eta behekoan. Berrikuntza bezala, 7 garagardo etxe ziangor dira aurtenguz, guztira 25 garagardo mota dastatzeko aukera izango delarik. Gaztetxoentzat ogitartekoak ere prestatuko dituzte, eta baita alemaniar erako burrunziak ere.

Garagardo Azokaren antolatuzaileek TAKEk eskaini dien laguntza eskertu nahi izan dute, eta zorte ona opa nahi diete Kontxako estropadetan.



Iazko Garagardo Azokaren une bat. ESTI EZEIZA

Trikujai Diskofesta bihar, Beotibarren

Aisia ■ 22:00etatik 05:00etara izango da zabalik; sarrerak hiru euroren truke eskuratu daitezke ohiko lekuetan.

ERREDAKZIOA

Abuztuko atsedendialdiaren ostean, iritsi da berriro ere Diskofestaren txanda. Izan ere, Udaleko Gazteria Departamentutik azaldu zuten, hilean behin antolatzeko asmoa dute, eta bihar izango da hirugarren Trikujai Diskofestaz gozatzeko aukera Beotibar pilotalekuan, gazteen gozamenerako.

Ohiko moduan 22:00etan hasiko da festa eta 05:00ak ingurura arte luzatuko da. Diskofestari behar duen giroa emateko N. Sound eta Nemux Gang DJak izango dira musika dantzagarria jarriko dutenak Beotibar pilotalekuan.

Sarrerak 3 euroren truke erosi ahalko dira, eta alde zuzenetik Gaz-

te Informazio Bulegoan eta Kultur Etxeko Gazte Topagunean eskuratu ahalko dituzte Diskofestara joan nahi dutenek.

Autobus zerbitzu berezia

Tolosako ezezik eskualde osoko gazteei zuzendua dago Trikujai Diskofesta, eta modu errazean bertaratu ahal izango dute, gainera, tolosarrak ez direnak. Izan ere, autobus zerbitzu berezia jarriko du Udalak bihar gauerako. Ondorengo orduetgia izango dute autobus hauek: 00:30ean Tolosatik aterata, San Frantzisko, Iurre, Amarotz, Alegi, Amezketeta eta Ikaztegieta ibilbidea egingo du. 02:00etan eta 03:30ean aterata ere egingo du ibilbide berdina.

Bestalde, 01:00etan San Frantziskoko geralekutik abiatuta, Iurre, Amarotz, Ibarra, Berrobi, Eldua, Elduain eta Berastegi ibilbidea egingo du. 02:45ean eta 04:15ean aterata ere ibilbide bera egingo du Tolosaldea autobusak.

@ Zeukidatzi. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako *Zeukidatzi* izeneko atalean sartu besterik ez duzu egin behar, eta bertan zure datuak sartu:

www.tolosaldeko-hitza.info

ERROMERIA LEGAZPIN!
Irailaren 14an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.
Koadrilren arteko apustu latza, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebeekin!
Autobusa, bazkaria eta taberna.
Euskarazko Zingizango webgunearen alde.
Anima zaitetz!
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

Atzo inauguratu zen Tolosako lehen apustu-etxea; bertan kirol zaletuek euren apustuak egin ditzakete; horrez gain, Kantabriko eta Nahien tabernetan makinak jarri dituzte.

Apustularien etxe berria

ESTI EZEIZA

Kirola bizitzeko modu asko daude, eta Euskal Herrian zabaldua dagoenetako bat apustu bitartekoa da. Jende gehienak egin du noizbait bere talde edo kirolari gogokoenaren aldeko jokoa. Horretarako bide, gehienetan, tabernak izan dira. Baina atzotik, apustuak egiteko gune berezi bat dago Tolosan. Iluntzean inauguratu baitzen, Errementari kaleko Kiroljokoa apustu-etxea.

Dagoeneko, kirol zaletuek beraien lehendabiziko apustuak egin ditzakete hemendik egun gutxira jokatu diren lehietan. Esaterako, asteburu honetan jokatu den Kontxako Banderan, Espainiako itzulian, futbol ligan edo hilaren 28an Tolosako zezen plazan jokatu den Aimar Irigoien eta Izeta I.aren arteko desafioan.

Kirol edo lehia bakoitzean hiru motatako apustuak egin ahal izango dira

Atzo inauguratu zen Tolosako apustu-etxea; denera hamar egoitza daude EAEn banatuta

Kiroljokoen ustetan «kirola bizitzeko gunea izango da Apustu-etxea». Bertan, makineta nahiz arretarako mostradorean egin ahal izango dira apustuak. Honez gain, zaletuek, telebista handietan kirol lehiak zuzenean jarraitzeko aukera izango dute, eta baita informazio monitorietan apustu ezberdinak ezagutzeko ere. Hauek «erraz maneiatu daitezkeen makinak dira», eta edozeinek har dezake parte.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxea.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan, Tolosan, Ibarren, Villabonan edo inguruetan. Deitu 635 71 24 44ra.

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Interesatuak deitu 686 11 89 20ra.

■ **Ingelesko irakaslea.** Lazkaoko

Apustu-etxera joateko aukera ez dutenek ere izango dute apustu egiteko bidea. Honetarako, Kantabriko eta Nahien tabernetara hurbiltzea besterik ez dute. Izan ere, bi gune hauetan ere apustuak egiteko makinak jarri dituzte, eta hauek sare nagusira lotuta daude.

Hiru motatako apustuak

Apustu-etxean hainbat eta hainbat kirolen inguruko apustuak egin ahal izango dira. Gainera, kirol jarduera bakoitzarekin, hiru motatako jokua egin daitezke. Alde batetik, etxearen aurka egiten da. Hemen kuota bat dago finkatuta emaitza bakoitzeko, eta bertan jartzen du, jokatzeko den euro bakoitzeko zenbat irabaziko duen jokalaririk. Honenbestez, talde edo kirolari bat faboritotzat jotzen bada, honen kuota baxuagoa izango da, eta asmatuz gero jokatuako euro horren truke emango dena beste zenbait kasutan baino gutxiago izango da.

Bigarren aukera porrarena da. Hau da, norgehiagoka zehatz baten inguruko apustua egin beharrean, hainbat jardunaldirena egiten duzu. Esaterako, Espainiako itzuliko lehen hiru sailkatuak asmatzea. Bestalde, irabazten duenak gutzira bildutako botea eramango du.

Azkenik, trabeseko modalitate dago. Hau pilotalekuetan erabiltzen den sistemaren antzekoa da. Hau da, apustulari batek apustu proposamen bat botatzen du, eta beste batek jasotzen du hori, trabesa egin ahal izateko. Azaldutako lehen bi modalitateetan, gutxienez euro bat jokatu dezake apustulariak, eta gehienez 100 euro. Trabe-sekoan berriz, gutxienez 100 euro, eta gehienez 600 euro. Dena den, hiru aukera

ingeleseko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali CVa hizkuntzeskola@gmail.com helbidera.

■ **Gitarra eskolak.** Gitarra klaseak bakarrik etdo taldean. Telefono zenbakia: 630 92 59 97.

SALGAU

■ **Autoa.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. Interesatuak deitu 649 51 09 41era.



Atzo iluntzean inauguratu zuten Kiroljokoa Tolosako apustu-etxe berria. ESTI EZEIZA

hauz gain, jendeak bere aldetik proposa ditzake apustuak.

Apusturako sare zabala

Eusko Jaurlaritzak apustuen inguruan jarritako legedi berriaren ondorioz sortu zen Kiroljokoa izeneko egitasmo hau. «Kirola bizitzeko modu honi irtenbide bat emateko asmoz». Egun, 10 apus-

tu-etxe daude Euskal Autonomia Erkidegoan, baina aurrera begira gehiago irekitzeko asmoa dute. Honez gain, lehen aipatu bezala, apustu makinak ipini dituzte haientan eta hainbat tabernetan.

Kiroljokoa Euskal Herriko kirolak bultzatzea du helburuetako bat. «Apustuak egitean emozio handiagoz bizitzen dituzu nor-

gehiagokak, horregatik kirolaren mundura hurbiltzeko bide izan daiteke apustu-etxea», honela dio Maribel San Jose, Kiroljokoako marketing eta komunikazio arduradunak. Bestalde, lagunarteko giroa sortzea nahi dute arduradunek beraien egoitzetan, esaterako, bertako telebistetan jarraituz norgehiagokak.

«Apustuen tradizioari eusteko balioko dute makina hauek»

TOMAS ARMENDARIZ » Kantabriko tabernaren jabea

Aisia » Joan den astean ipini zuten Kantabriko tabernan apustuak egiteko makina, eta oraingoz, ikusmin handia sortu du.

E. EZEIZA

Apustu munduan erreferente izan da beti Tolosako Kantabriko taberna. Ohitura honekin jarraitzeko asmoz, joan den astean ipini zuten bertan apustuak egiteko makina horietako bat. Honen inguruan mintzatu da bertako jabea eta apustuetan aditua den Tomas Armendariz (Elduain, 1953).

Zer moduzko harrera izan du orain arte makinak?

Gauza berria den horretan, ikusmin handia sortu du eta onarpena izan du. Esaterako, estropadengatik, erremonteko finalaga-



INIGO TERRADILLOS

tik... jendea hurbildu zen joan den astean.

Zeintzuk dira makina hauetan apustu egitearen onurak?

Pilota partidaren kasuan, pilotalekuan apustuak egitekoan, ordaindu beharreko komisioa han-

diagoa da makinetakoa baino. Bestalde, apustuen tradizioari eusteko balioko du.

Orain arteko apustuak egiteko moduarekin alderatuz, zer moduzkoa da hau?

Esan beharra dago makinaren sistema hotzagoa dela. Horregatik, zenbait kiroltarako egokiagoa da, beste batzuetarako baino. Futbolaren inguruko apustuetarako ongi dago, baina herri kirolek kasurako aurreko sistema nahiago nuen. Hala ere, pilota finaltarako ere erabilgarria izan daiteke.

Nola funtzionatzen du ordainketen kontuak?

Apustulariak makinan sartzen du dirua. Ondoren, agiri bat ematen dizu berak, zehaztuz, noren alde egin duzun apustua eta zenbatekoa den saria. Irabaziz gero berriz, egiaztagirarekin bankura joan behar du sarituak diruaren bila.

34 gidarik hartuko dute parte igandean II. Auto Slalomean

Zizurkil » Proba dela eta, Elbarrena auzoko erdigunea itxita egongo da ibilgailuentzat 09:00etatik 14:00etara.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo jaien bigarren asteburaren baitan, II. Auto Slaloma antolatuko dute igandeko. Elbarrena auzoan auzoan zehar garatuko da proba eta guztira 34 gidarik eman dute izena eta 9 Kart Kross izango dira. Kilometro pasatxoko trebetasun zirkuitoa izango dute lehian ariko diren gidariek.

Probaren ondorioz, 09:00etatik 14:00etara bitarte Elbarrena auzoko erdigunea itxita egongo da ibilgailuentzat eta, beraz, Asteasu aldera joan nahi dutenek Zizurkil Goitik joan beharko dute. Antolatzaleek jakitera eman dutenez, bide mozketabehar bezala adieraziko dute.



laz egin zuten estreinakoz Auto Slaloma. HITZA

Probaren nondik norakoak

09:00etan hasiko da mugimendua Elbarren. Hain zuzen ere, orduntxe ekingo diote autoen egiazta-tzeari.

10:30ean, berriz, entrenamendu

saioa egingo dute gidariek eta ondoren lehenengo eta bigarren mangak egingo dituzte.

Amaitzeko, 14:00a aldera, irabazleei sariak banatuko dizkiete.

Etxeko arriskuen eta lehen sorospenen inguruko hitzaldia

Altzo » Heldu den astelehenean izango da 19:00etatik aurrera udal ekintza eta batza aretoan.

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean *Etxeko arriskuak eta lehen sorospenak* hitzaldia eskainiko dute 19:00etan, udal ekintza eta batzar aretoan. Bereziki, erretiratuak zuzenduta dagoela jakinarazi dute Udaletik, baina edonork parte hartu ahal izango du. Sarrera doakoa izango da.

Kutxaren laguntza duen hitzaldi honetan etxean gerta daitezkeen arrisku eta istripuen berri emango diete bertaratuak eta behar bezalako prebentzio-neurria hartzeko bideak azalduko dituzte.

Egitaraua

Hain zuzen, gai hauek jorratuko dituzte hitzaldian: Istripu mota nagusiak (intoxicazioak, etxeko istripuak); janariaren eta botikaren ondoriozko intoxicazioak; etxeko istripuak, arriskuak; etxeko istripurik arruntak (erorikoak, erredurak, eztauri trabatzeak, zauriak, bero eta hotz kolpeak); lehen laguntzak; lehen laguntzak eman behar dituen pertsonaren ezaugarriak eta trebetasunak; lipotimiak eta zorabioak; zer egin odol jario bat izanez gero; eta gorako eta beharero, bihurritu, erredura edota eztauri trabatzeen lehen laguntzak.

Nazaret zentroak eta Gipuzkoako Erizaintzan diplomatuen eskola ofizialak ere lagunduko dute hitzaldian.

Asvineneak harizko txotxongiloak egiteko ikastaroa antolatu du

ERREDAKZIOA

Asvinenea Arte eszenikoan Laborategiari harizko txotxongiloak egiteko eta erabiltzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak Carlos Lopezek gidatuko du. Iraileko hirugarren eta laugarren asteburuan landuko dute eta, guztira, 38 orduko ikastaroa izango delarik. Bertan parte hartzeko interesa dutenek informazio gehiago eskura dezakete 630 214 483 telefono zenbakian edo *asvinenea@gmail.com* helbidean. Datorren astea izango dute horretarako.

Laburrak

Euskal jaiaren inguruko bilera, asteartean

ANOETA » Urriaren 12rako Euskal jaia izango da Anoetan. Egunaren nondik norakoak antolatzeko hurrengo bilera heldu den irailaren 16an, asteartearrekin, izango da, 20:00etan, udal areto nagusian. Antolatzaleek parte hartzeko deialdia egin dute. Egunean zehar baserriak eta artisauen azoka, herri kirolak, musikariak, herri bazkaria, talogileak, erromeria... izango dira, besteak beste.

Arco Iris-Ortzadar elkartearen urteroko festa

TOLOSA » Arco Iris-Ortzadar elkar-teak urteroko festa egingo du hila-ren 20ean, larunbatean, bazkari batekin. Interesatuak izena hilaren 15a baino lehen eman dezakete, elkartean bertan.

Argazki erakusketa estatuan

HERNIALDE » Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilarien erakusketa dago ikusgai azarora arte, prestige-ren hondamenari buruz.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

100 posta bidaliko dizkiote astero Eneko Galarragari

Villabona » AAMren ekimena da; «euskal presoak bizi duen isolamendu egoera salatze» jarri dute abian.

ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga euskal preso bilabonatarra isolamendu egoeran dago duela bi aste. «Egoera hau salatze» Villabonako Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak ekimen berezia jarriko du martxan. Hain zuzen, «astero eta egoera ho-

rretan jarraitzen duen bitartean», 100 posta bidaliko dizkiote. Azaldu dutenez, «babesa» azaldu nahi duen orok har dezake parte; postak Iratzar elkartean daude, helbidearekin prestatuak.

Galarragaren isolamenduarien arrazoiak

Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak azaldu duenez, «Galarraga preso sozial baten erasoaren aurrean defendatu zenean» jazo zen egoera. Ondorioz, isolamendu ziegabatean dago Villabonako «bal-dintza gogorretan: deiak murriztu dizkiote, liburu bat irakurtzeko

baimena eskatu behar du, paketa-reik ezin du izan, telebistatik ezin du ikusi, ...».

«Ilgandeko manifestazioa joateko» deialdia

Salaketa honekin batera, Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak, etzi, igandean, Donostian deitu duen manifestazioa joateko deialdia luzatu du, «euskal presoei jasaten duten bidegabekeria guztiak salatze».

Eusko Jaurjaritzako Barne sailak manifestazioa debekatu egin zuen pasa den astean «iazko istiluak ekiditeko», baina AAMk eutsi egin dio deialdiari.

Joxean Tolosa Txapelketaren finalerdiak jokatu dituzte gaur

Amezketak

Bigarren finalerdiak 22:00etan hasiko dira, kadeteen, gazteen eta nagusien mailan.

ERREDAKZIOA

XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa azken txanpara heltzen ari da. Hala, hiru mailatan gaur gauaren bigarren finalerdiak jokatuko di-

tuzte, 22:00etatik aurrera. Bertan izango diren pilotarien artean izango da eskualdeko ordezkari-tzarik, izan ere, Nagusien mailan Elurbe lizartzarrik Irurtzungo Armendariz izango du aurrez aurre.

Kadeteen eta gazteen mailan ere bigarren finalerdiak jokatu-ko dituzte. Lehenak, Aizpuru azkoit-iarra eta Loidi añogarra izango dira aurrez aurre; gazteen mailan, berriz, Azkoitiko Epelde eta Irur-

tzungo Zabaleta ariko dira nor bai-nor.

Pasa den astean jokatu zituzten lehen finalerdiak. Beraz, bertan irabazle izandakoek zain dituzte dagoeneko gaur finalerdietan irabazten duten pilotariak.

Maila handiko txapelketa izaten ari da eta partida interesgarriak izan dira tartean. Kadeteen, gazte- en eta nagusien finalak, igandean bertan izango dira Amezketako pi- lotalekuan.



Lander Otermin Suedian izan berri den Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketan izan da. R. CALVO

«Sailkatu gabe ere, ez nuen espero horrela tiratzea»

Ibarra » Lander Otermin ibartarra Suediatik itzuli berria da, bertan Sokatirako Munduko Txapelketan izan da.

REBEKA CALVO

Lander Otermin Suediako Ste-nungsum udalerritik etorri berria da. Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketan hartu du parte bertan, eta txapelik gabe etorri bada ere, oso pozik itzuli dela dio, izan ere «munduko txapelketa beste motibazio bat da, gainera sailkatu gabe ere, ez nuen espero horren ondo tiratzea».

Euskal Herriko lau talde izan ziren klubaren arteko txapelketan; Erandioko Goierri A eta B, Laukizeko Gaztedi eta Getxo taldea. Ibartarra Goierrikoekin joan zen Suediara, baina Erandioko taldea pisu txikian, 560 kilokoan, izan zen txapelketa eta Otermin horretan ordezko moduan besterik ez zuen parte hartu. «Suedian Goierri A eta Goierri B zeuden. Pisu txikian Goierri A bakarrik atera zen eta ni talde horretan ordezko bezala egon nintzen. Irabazi egin zuten. 640 kilokoan, aldiz, bi ekipo atera ziren eta ni horretan An eta Bn nengoen», azaldu du.

Txapela ez etxeratzeak, hala ere, ez du batere kezkatzen Otermin: «Oso ondo tiratu genuen, baina azkenean tontakeria batengatik ez ginen sailkatu. Kontua, gainera, berez atzetik dator; aurreko munduko txapelketan pisu horretan zortzi soka genituen, soka bakoitzeko bosteko taldeekin, horregatik au-

rreko zortzi horiek serieko buru ziren, soka bakoitzean bakarra jarriaz, zoritxarrez gure taldean horietako lau sartu zituzten eta 640 kilokora 605 kilorekin joan ginen, askoz gutxiago. Horregatik diot beti zorteak ere baduela zerikusia honetan. Italiako goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketan zortea izan genuen, baina oraingoan ez. Pisu falta zitzaigun, ekipo bakarrak hartu zigun aurrea, bi alderdietara, beste ekipo guztiri gutxienez alderdi bakarrera irabazten genien, nahiz eta gero beste alderdira beraiek irabazi. Falten kontua ere bazen, guri faltaren bat gehiago egokitu zitzaigun, eta besteak pasa ziren aurrera», azaldu du Suedian egindako lana gogoratuaz.

Zortea, ia ezinbestekoa

Oterminen ustez, hortaz, zortea oso faktore garrantzitsua da sokatiran; «560 kilokoan Goierrikoak zozketarekin ere zortea izan zuten eta Laukizeko Gaztedi taldeak, ordea, alderantziz. Ez ziren sailkatu ere egin. Gure taldean esate baterako, batzuk oso ondo ari ziren eta ni talde horretan ordezko bezala egon nintzen. Irabazi egin zuten. 640 kilokoan, aldiz, bi ekipo atera ziren eta ni horretan An eta Bn nengoen», azaldu du.

Txapela ez etxeratzeak, hala ere, ez du batere kezkatzen Otermin: «Oso ondo tiratu genuen, baina azkenean tontakeria batengatik ez ginen sailkatu. Kontua, gainera, berez atzetik dator; aurreko munduko txapelketan pisu horretan zortzi soka genituen, soka bakoitzeko bosteko taldeekin, horregatik au-

ekipo bati irabazi genion eta hura pasa zen aurrera».

Ibartarra orain bost bat urte hasi zen sokatiran, goma gainean ibili zen lehenik eta lur gainean ondoren. Azken modalitate honetan oraindik ere ikasten ari dela dio: «Goierri bezalako talde batean egotea niretzako oso ona izan da, nigan konfiantza hori jarri dutela ikustea oso ona izan da. Suedian tiratzen egon naizenez ikasten aritu naiz, ez bakarrik ni tiratzerakoan, baita munduko beste toki batzuko jendea tiratzen ikustean ere. Oso aberasgarria izan da. Auskalo zenbat denbora pasa dudana sokatirari begira eta akatsak ateratzen! Niretzako kanpora joatea oso positiboa da».

Suediatik itzuli berri, orain atsedean hartzeko garaia iritsi zaio Otermini, izan ere lur gaineko sokatira denboraldia udako hilabeteetan zehar izaten da eta orain goma gainekoarentzanda, urria bukaeran edo hasiko dira tiratzen. Baina ibartarrak «deskonektatu» nahi du orain, sokatira burutik kendu eta bolada batean lasai ibili nahi duela azaldu du, «aurrera, tiratzen dagoen jende kopurua ikusi ondoren, hasiko naiz behar bada berri ere tiratzen».

Goma gaineko sokatiran Gipuzkoan talde bakarra dago, Astigarrakoa, eta bertan aritzen da. Izan ere, garai batean talde pila bat zeuden Euskal Herrian, bai goma gainean eta baita lur gainean ere, «baina orain jaitsi egin da» kopurua. «Ni hasi nintzenetik ere asko jaitsi da. Kanpora joanda hala ere, talde asko daudela ikusten duzu», argitu du Oterminen.

Isun sinbolikoak eta bizikleta martxak, Mugikortasun Astean

Mugikortasuna » San Lorenzo Udaltalde 21ak Mugikortasun Astea ospatuko da Europa osoan datorren asteartetik astelehena bitarte. Berastegi, El-duain, Berrobi, Ibarra eta Belauntza batzen dituen San Lorenzo Udaltalde 21ek ere hainbat ekintzat prestatu ditu ordurako. Zehazki, asterarterako, hilak 16, autotan umeak lotzeko sistema homologatuen erabilpenari buruzko hausnarketa bultzatzeko materiala banatuko dute Ibarrrako Uzturpe, Berrobiko San Andres eta Berastegiko Muñagorri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei. Asteazkenean be-

rriz, isun sinbolikoak jarriko dizkiete Berastegin gaizki aparkatuta dauden autoeei. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen laguntza izango dute horretarako eta 09:00etatik 11:00etara bakarrik egongo dira. Ibarrran, bere aldetik, Emeterio Arreseko plazan 16:00etatik 18:00etara, bizikleten txekea egingo dute.

R. CALVO

Hilaren 22an izango den Europako kotxerik gabeko eguna dela eta Mugikortasun Astea ospatuko da Europa osoan datorren asteartetik astelehena bitarte. Berastegi, El-duain, Berrobi, Ibarra eta Belauntza batzen dituen San Lorenzo Udaltalde 21ek ere hainbat ekintzat prestatu ditu ordurako. Zehazki, asterarterako, hilak 16, autotan umeak lotzeko sistema homologatuen erabilpenari buruzko hausnarketa bultzatzeko materiala banatuko dute Ibarrrako Uzturpe, Berrobiko San Andres eta Berastegiko Muñagorri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei. Asteazkenean be-

Isun sinbolikoak Ibarrran

Hilaren 18an isun sinbolikoak jarriko dituzte, berriz ere, baina oraingoan Ibarrran 10:30etik 12:30era, horretarako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen laguntza izango dute.

Hilaren 19an Berastegin egingo dute bizikleten txekea, frontoietako plazan 9:15etik 11:15etara. 11:30ean Berastegiko Lehen Hezkuntzako ikasleek bizikleta martxa egingo dute. Europako Autorik Gabeko Egunean, hilak 22, astelehena, Ibarrrako Uzturpeko Lehen Hezkuntzako ikasleek bizikleta martxa egingo dute 12:00etan.



Iaz Ibarrran egindako Mugikortasun Asteko irudia. A. IMAZ

Laburrak

Izena eman daiteke jada Belabietako ikastaroetan

IBARRA » Ibarrrako Belabieta kiroldegia datoren ikasturterako Pilates eta norbanako defentsa lan-tzen duen Wing-Tsun ikastaroak eskainiko ditu lehen aldiz. Lehena asteartetan eta ostegunetan izango da eta bigarrena, aldiz, astelehenean eta asteazkenean. Ikastaro hauekin guztiekin batera ohikoak diren 3. adinekoentzako gimnasia, spinninga, helduentzako aerobica, gimnasia erritmikoa, yoga, cardio tonoa eta pilota eskolak ere eskainiko dituzte Belabieta kiroldegian. Informazio gehiago nahi duenak 943 6715 44 telefono zenbakira deituta aurkituko du.

Bihar hasiko da areto futboleko denboraldia

IBARRA » Denboraldi hasierari egingo dio aurre areto futboleko Ibarra taldeak bihar Lizarran izango duen Lizarria taldearen kontrako partidarekin. Taldeak jokalaria berdina izango ditu denboraldi honetan, nahiz eta oraingo bezala ez duen baxa bakarra Mintxo nafarrena izan da, izan ere osasun arazoak ditu eta lehiaketa utzi du. Aitzol Oyarbide jubenila eta Iaz Goierri pasatzen Aritz Otaegi ere egongo dira denboraldi honetan. Era berean, entrenatzaileak, Txubelek, eta ekipo teknikoak osatzen duten gainontzeko pertsonak ere jarraituko dute.



Zaldi Eguna 2008 bihar ospatuko da Leitzan. Bada zer pentsatua eta antolatua azken egun honetan. ASIER IMAZ

Atzerapenak atzerapen bihar ospatuko dute Leitzan Zaldi Eguna 2008

Aisia » Ospakizuna herriko hiru puntu ezberdinetan ospatuko da egun guztian zehar antolatu diren ekitaldietan.

ASIER IMAZ

Aurrera Perra Taldeak Zaldi Eguna 2008 antolatu du bihar Leitzan, Udala eta Plazaola Partzuergoaren babesarekin. Egun guztian zehar hamaika ekitaldi ikusteko aukera egongo da herriko hiru puntu ezberdinetan: Inguruarten, herriko plazan eta Aurreran.

Zaldi Eguna ekainean egiteko azen arren, garai horretan abian zegoen garraiolarien grebaren ondorioz, antolatzaileek ospakizuna egutegian atzeratu egin behar izan zuten.

Kolore eta arraza ezberdinetako zaldiak

Zaldi Eguna 09:00etan hasiko da Inguruarte belardian. Bertan zaldun ugari elkartzeko dira Guratz mendixkatik Peruarri ibilaldia egiteko. Iñaki Perurena harriekin osatzen ari den parkeaz gozatu ondoren, abiapuntura itzuliko dira.

Inguruarten 10:30etik aurrera *Leitzatreek* edo zaldi trebetasun froga ospatuko dute. Ondoren haurrentzako poniak, perraketa erakustaldiak eta zalgurdi paseoko egingo dituzte. Goiza amaitzeko, zaldi erakusketa antolatu dute Pe-

rra Taldeko kideek. «Bertan arraza ezberdinetako zaldiak ikusteko aukera bikaina egongo da».

Eguerdiari Zaldi Eguna plazara joango da. 13:30ean zaldi probak egongo dira bertan ikusgai eta 14:30ean herri bazkaria egingo dute. Zikro jateaz dastatzeko, antolatzaileen esanetan, jada 150 lagunek eman dute izena. Mahai inguruan jana eta edanaz gain, country musikaz gozatzeko aukera izango dute bazkaldarek, Lobo & Carmina taldearekin.

Arratsaldean heziketa erakustaldiak

Ikuskizunak 17:30etik aurrera Inguruarten jarraituko du. Arratsalde partean hezitzaileen txanda etorriko da: Western erakoa, heziketa naturala, espainiar erakoa eta jineta. Azken honen inguruan, bertan bizi den nikaraguar bat arduratuko da. «Jineta orain dela urte askoko ohitura da Nikaraguan. Bertan garai bateko modura bizi dira oraindik, zaldien inguruan. Bertatik etorri zen herritar batek erakustaldia eskainiko du eta berarentzat menditik ekarritako zaldi basatiak plazaratuko ditugu».

Zaldiez gain txekor bati lazoa nola bota behar zaion ikusteko aukera egongo da Inguruarten, zalgurdien erabilaren erakustaldiarekin batera.

Jaia amaitzeko 23:00etan Country musikaren txanda iritsi-

ko da Lobo & Carmina taldearen eskutik.

Eguraldiari begira

Aurrera Perra Taldeko kideak lanean gogotsu aritu dira Zaldi Eguna 2008 aurrera ateratzeko. Hala ere, atzokoan zerura begira aurkitzen ziren, bihar eguraldia nondik nora joango den jakin nahian. Euri apur bat iragarrita baldin badago ere, urtean behin ospatzen den jai ikusgarrian parte hartzeko aitzakiarik ez dago. Herritarrek eta ingurukoak gonbidatuak daude.

» EGITARUA

Inguruarten

■ **09:00etan.** Ibilaldia: Guratz-Peruarri.

■ **10:30ean.** Leitzatreek; Haurrentzako poniak; Perraketa; Zaldi erakusketa eta zalgurdien osteratxoak.

■ **17:30ean.** Western erako heziketa; Heziketa naturala; Zalgurdi erabilaren erakustaldia; Espainiar erako heziketa eta Jineta.

Plazan

■ **13:30ean.** Zaldi proba.

■ **14:30ean.** Herri bazkaria; zikro jatea.

Aurreran

■ **23:00etan.** Country musika: Lobo & Carmina.

Azken egunetako gertaeren inguruan Etxeraten irakurketa

Politika » Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxeratek «jasaten ari diren eskubide urraketak» salatu ditu irakurketan.

A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Euskal Errepublikako Politikoen Senitartekok, Etxeratek, aste honetan Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin gertatuaren inguruan «haserrea eta ezinegona» adierazi du.

Gertaeren kronologia

Abuztuaren 31n, arraun munduko hainbat lagunek eta presoen senideek manifestaziora deitu zuten Donostian irailaren 14an, azken urteetan bezala Kontxako Bandararen bigarren asteburuan; «euskal preso politikoen eskubideen alde».

Ondorengo egunetan, Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak manifestazioa debekatu egin zuen, iragan urteko istiluak ekiditeko neurri bezala.

Irailaren 7an, joan den igandean, Etxeratek «eskubideen urraketak salatzeko» Barne Saileko arduradunarekin biltzeko asmoa agertu zuen.

Egun berean, Javier Balza sailburuak, Etxerateko ordezkariaren ez zela elkartzeko aipatu zuen, bilerari «antzerki mediatikoa» besterik ez zela aipatuz.

Irailaren 9an, asteartean, Etxeraten ordezkari bat Eusko

Jaurlaritzak Gasteizen duen La-kuako egoitzara joan ziren. «Senideekin hitz egiteko ezezkoaren aurrean, Balza jaunak Eusko Jaurlaritzako Barne Sailean dagoenetik, Euskal preso politikoei zein beraien senitartekoei bizi duten errealitatea erakusten duen balantzea zuzendu» zioten senideek.

«Kontraesana izugarria da»

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxeratek euren irakurketa herritar guztiei zabaldu nahi izan diete; «jasaten ari garen eskubide urraketak dela eta, azkenekoa etziko Donostiako manifestazioaren debekua, lehen pertsonen azaldu nahi izan genion gure iritzia, baina Eusko Jaurlaritzako Barne Sailean dagoen Balza jaunak atek itxita edukiko genituela egin zuen publiko. Ez gizona ongi etorriak izango. Eta horrekin nahikoa ez, eta, gure jarrerak antzezlan mediatikokoak sortzen dituela adierazi zuen. Eta esan beharra dugu, antzezlan mediatiko horiek beraiek sortzen dituztena istiluak ekiditeko manifestazko eskubidea zapaltzen dituzten bakoitzean».

Eusko Jaurlaritzaren «kontraesan izugarria» ere salatu nahi izan du Etxeratek. «Estrasburgoko epaitegira zuzendu nahi duten salaketan, Estatu espainolak adierazpen askatasuna eta biltzeko eskubidea urratzen dituela diote. Gasteizko Gobernuak eskubide horiek hainbat euskal herritarri ukatzen dizkiola ikusita; Europara zein zilegitasunarekin doaz?».

Leitzako eta Aresoko herritarrentzat tailerrak

Kultura » Jatorri ezberdineko pertsonen arteko zubiak eraiki asmoz antolatu ditu ikastaroak Mankomunitateak.

A. IMAZ

Leitza, Areso, Goizueta eta Arano batzen dituen Mankomunitatearen Gizarte Zerbitzuak, Kulturartekotasun tailerrak antolatu ditu urrian eta azaroran.

Kultura ezberdinen ulermena

Gizarte zerbitzuetatik azaldu dutenez, proposamenaren helburuak honako hauek izango dira: «Nork bere burua aztertzea kulturaren arteko elkarbizitza ulertzeko bitartekoak jartzea. Kulturarteko-

tasuna egitasmoetan txertatzea eta hezitzaileo kultur arteko hezkuntzan lan egiteko baliabideak ezagutaraztea».

Horretarako, Mankomunitateko Gizarte zerbitzuetako antolatzaileen esanetan, «jatorri kultural ezberdina duten pertsonen aurrean pentsatu, sentitu eta egiten dugunari buruz hausnartzeko tartea eskainiko dute tailerrek, beste herritako ohiturak ezagutzeko denborarekin batera».

Izena emateko aukera

Langabetuentzat ikastaroaren prezioa 10 eurokoa izango da eta lanean ari direnentzat 20 eurokoa. Izena emateko epea urriaren 15ean amaituko da eta edozein zailtasun argitzeko 948 51 08 40 telefono zenbakira dei daiteke, Ur Algorerengatik galdetuz.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Anayet eta Midi de Os-sau mendietara irteera antolatuta du Oargik hilaren 19tik 21era. Izenematea, 630 830380 zenbakian.

Musika

■ **Tolosa.** Bonberenea sutan: 20:00etan aurrera Naiz Roxa, Kerobia, Zea Mays, Sorkun eta Vice-presidentes eta Anestesia futbol zelain eta etxe barruan DJ Makala. Sarrera, 12 euro.

Jaiak

■ **Zizurkil.** Jaiak: 18:00etan ruedapoteoa AHT, 19:00etan kros mixtoa, ondoren buruhandiak, 20:00etan pintxo lehiaketa eta afaria, 23:00etan Oinkari dantzari taldearen *Aspaldikotik* eta ondoren Aritz Sound System txosnetan.

Antzerkia

■ **Anoeta.** Igor de Quadrak *Methodology* helduentzako antzerkia egingo du Anoetako udaletxeko aretoan, 22:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Siete Mesas de Billar* Frances filma Kutxako urrezko zerbitzuak antolatuta, 17:00etan Leidor aretoan. 22:30ean, *Escondidos en Brujas*.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Etxe orratzen hiritik...

NEW YORK (AEB) ● Gure bi parte-hartzaileek New York aukeratu dute aurtengo oporraldia igarotzeko. Dudarik gabe, aukera bikaina. Aitziber Urkolak argazki hau bidali du eta argazkiarekin batera azalpentxo hau ere eskaini du: «Bidalitzen dizuedan argazki hau, New York-eko Rockefeller Center-etik aterata dago. Bertan, Manhattan-eko hainbeste eraikuntza alturen artean kontrastea eginez, Central Park famatua agertzen da. (Bertakoek *Pulmon verde* deitzen diotena)».



NEW YORK (AEB) ● Ikuspegi guztietatik ederra omen da New York. Fernando Rojo tolosarrak ere argazkia atera nahi izan dio hiri erraldoiari, oraingoan ilunabarra aukeratu. Hau da berak azaldu duena: «Argazkia New Yorken aterata dago, ilunabarrean Manhattango erraldoiek sortzen duten itzalen ikusgarriak dira».

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Jatetxea Edaritegia
Pasus
Tel.: 943 249 775
Ernio bidea, 7 • **Zizurkil**
pasus@pasusrestaurante.com
www.pasusrestaurante.com